

BERRI OROKORRAK

2023ko urtarrilaren 27an 19. zenbakia

Eski-irteera datak

Bihar joango dira eskiatzera egun baterako izena eman zuten ikasleek.



DBH4. mailako enerrifak

DBH4. mailako ikasleek ikasturte bukaeran ikas-bidaia finantzatzeko zozketa-txartelak atera zituzten. Bertan, bi laguntzako afaria zozketatzen zen Patri jatetxean. 2023ko urtarrilaren 20an ONCEren kupoi sarituaren azken 4 zifrekin bat etortzen den zenbakia zen saritua. Beraz, errifan zenbaki sariduna **8785** izan da. Sariaren irabazlea bazara, ZORIONAK! Deitu, mesedez, Udarregi ikastolara, 943.36.12.16 telefonora.



Otsaileko jangelako menuak

Hau da otsailean jangelako bazkaldarrek izango duten [menua](#). [Hemen](#) alergia edo intolerantziaren bat duten bazkaldarren menua.



2023/2024 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da **otsailaren 13tik 24ra** (biak barne) izango dela **2023-2024 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea**.

ATE IREKIEN eguna otsailak 4, izango dugu **11:00etan HHko eraikineko jangelan** (Alperroburu kalea, 5 zk.). Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz (haurrekin etor zaitezke).

Anima zaitezte!



Eskola Kirola: LH 5-6 multikirola aztergai

Denbora bat da hainbat tokitatik kezka bat jaso izan duguna Usurbilen dugun multikirol ibilbidearen inguruan. Landu berri dugun Plan Estrategikoan ere, gai hori landu beharra jasota geratu zen beste neurri batzuekin batera. Horregatik, hausnarketa ireki nahi dugu ereduaren birformulazioa bideratzeko.

Komunitate guztiaren parte-hartzea garrantzitsua izango da: hezitzaileak, kirol elkarteak, gurasoak zein ikasleak. Horretarako hainbat hitzordu eta parte hartzeko modu aurreikusi ditugu eta parte hartzera animatzen zaituztegu.

Otsailak 1 -- Eskola Kirola LH 5-6 multikirola aztergai hitzaldi-solasaldia (Aldundiako eta UPV-EHUko adituekin)

Otsailak 22 -- Usurbilgo errealitatea, indarguneak eta ahulguneak lan-saioa

Martxoak 15 -- Proposamen konkretuen lanketa lan-saioa

OHARRAK: Saio guztiak, Potxoenean izango dira arratsaldeko 18:30ean.

Bestalde, LH 5-6ko ikasleen ikuspuntua galdetegi baten bitartez jasotzea aurreikusten da.



Usurbilgo Udala

HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Inauteriak

Gogoratu, laster inauteriak datozela eta zakuak prestatu behar direla. Norbaitek zakua prestatu gabe baldin badauka eta laguntza beharko balu, tutoreari jakinarazi, mesedez.



LEHEN HEZKUNTZA

Eskola-kirola

Astelehenean urtarrilak 30, futbol-eskubaloian dabilizan **LH 5 eta 6-ko neskak futboleant** hasiko dira Haranen 17:00etatik 19:00etara, eta **mutilak eskubaloian** Oiardo kiroldegian 16:30etik 18:30era.



Zorriak

LH 1eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Irteera

Datorren **asteartean**, urtarrilak 31, **LH 3koak** irteera dugu. Tolosako Topic-era joango gara. Beti bezala, ura, hamaiketakoa, bazkaria eta musukoa eraman beharko ditugu.



DBH

Irteeren kobrantzak

Otsailaren 3an ikasleek egingo dituzten irteeren kobrantza egingo dela jakinarazten da.

- **DBH 1eko** ikasleei, ikasbidaiako aurrerakin gisa **30 euro** kobratuko zaizkie.
- **DBH 4ko frantseseko ikasleei**, Bordelera egingo duten irteeraren aurrerakin gisa, **40 euro** kobratuko zaizkie.



Irteera

Eguraldiak laguntzen badu, **ostiralean**, otsailak 3, **DBH 4. mailakoak** Zumaiaiko Geoparkea eta Flysch-a ezagutzera joango gara Biologia-Geologiako ikas irteeran. Bertan, gelan landutakoak praktikara eramatea izango da helburu. Gogoratu hamaiketakoak, Mugi garraio-txartela eta musukoa eramatea.

